| OHARRA | NOTA |
| --- | --- |
| Zalantzak sortu ziren, ikasturte hasierako prozesuan izangai bakoitzari esleitzeko lehentasunezko eskubidea ematen dion plaza motaren argitalpenari buruz. Hori dela eta, azalpen-ohar hau egitea beharrezkotzat jotzen da: | Ante las dudas suscitadas en relación con la publicación del tipo de plaza que otorga a cada candidato/a un derecho preferente de adjudicación en el proceso de comienzo de curso, se procede a emitir la presente nota aclaratoria: |
| 2022ko maiatzaren 23an, lehentasunezko esleipen-eskubidearen prozesuari buruzko informazio-ohar bat argitaratu zen Hezkuntza Sailaren webgunean eta Hezigunea atarian, prozesuari buruz sortu diren zalantzak argitzeko. Oharrarekin batera, 2021-2022 ikasturteko abuztuko ikasturte-hasierako esleipenak argitaratu ziren, eta honako izen hau eman zitzaien: "*2021-2022 ikasturteko behin betiko esleipena*", hautagaiei Hezigunea atarian argitaratutako lanpostuaren ezaugarriak zuzenak direla konfirmatzeko eta ikasturte honetan esleitutako lanpostuarekin bat egiten dutela egiaztatzeko. | Con fecha 23 de mayo de 2022 se publicó en la web del Departamento de Educación y en el portal Hezigunea una nota informativa relativa al proceso de derecho de adjudicación preferente a efectos de esclarecer aquellas dudas que se han ido generando sobre el proceso. Junto con la nota, se publicaron las adjudicaciones de comienzo de curso de agosto del curso 2021-2022 bajo la denominación "*Adjudicación definitiva del curso 2021-2022*", con el fín de facilitar a las personas candidatas la comprobación en su portal de Hezigunea si la tipología de plaza que se les muestra coincide con la que les fue adjudicada en las adjudicaciones del presente curso escolar. |
| 2021-2022 ikasturte-hasierako esleipenen zerrenda hau **EZ da** lehentasunezko esleipenerako eskubidea duten pertsonen zerrenda. | Este listado de las adjudicaciones de comienzo de curso 2021-2022 **NO constituye** la lista de personas con derecho de adjudicación preferente. |
| Gogoratu behar da ez dela egin eta ez dela argitaratuko lehentasun-eskubiderik duen zerrendarik. Irakasle bakoitzak HEZIGUNEAn egiaztatu behar du ezarritako baldintzak betez gero lehentasunez esleitzeko eskubidea emango dien ikastetxea eta plaza-mota. | Cabe recordar que no se ha procedido ni se va a proceder a publicar ningún listado de derecho preferente. Cada docente debe comprobar en HEZIGUNEA el centro y tipología de plaza que les otorgará el derecho de adjudicación preferente en caso de cumplir los requisitos fijados. |
| Abuztuan 2021-2022 ikasturte-hasierako esleipena lortu zuten pertsona guztiek ez dute lehentasunezko esleipen-eskubidea aitortuta. Era berean, pertsona askok, 2021-2022 ikasturte-hasierako esleipenen zerrendan agertzen ez badira ere, lehentasunez esleitzeko eskubidea dute; zerbitzu-eginkizunak (deialdi eta luzapen berriak), langile egonkortuak, etab. | NO todas las personas que obtuvieron una adjudicación de comienzo de curso 2021-2022 en agosto tienen reconocido el derecho de adjudicación preferente. De igual forma, hay muchas personas que, aunque no figuren en el listado de adjudicaciones de comienzo de curso 2021-2022, tienen derecho de adjudicación preferente; es el caso de comisiones de servicio (nuevas convocatorias y prórrogas), personal estabilizado…etc. |

| | |
|---|---|
| Azkenik, gogorarazi behar da EPEa gainditu duten eta praktikaldia 2021-2022 ikasturtean egin behar duten langileek ez dutela lehentasunezko esleipenerako eskubidea, haien esleipenak kolektibo horren araudiaren arabera egiten baitira, eta ez ordezkapen-zerrendetarako hautagaien araudiaren arabera. | Finalmente, cabe recordar que el personal que ha aprobado la OPE y tiene que realizar las prácticas el curso 2021-2022, no tiene reconocido el derecho de adjudicación preferente, ya que sus adjudicaciones se realizan en virtud de la normativa de dicho colectivo, y no el del personal candidato a listas de sustituciones. |